2024ko urtarrilean erregistratutako langabezia

2024ko urtarrilean, 3.450 langabe gehiago erregistratu dira LANBIDEko bulegoetan, hau da, % 3,2ko igoera; 111.229 langabe daude guztira. Urtarrilaren ezaugarri nagusienetako bat erregistratutako langabeziaren igoera izan ohi da. Hala eta guztiz ere, aurtengo langabeen gorakada ez da azken 10 urteetako nabarmenenetakoa izan.



	urt.-10	urt.-11	urt.-12	urt.-13	urt.-14	urt.-15	urt.-16	urt.-17	urt.-18	urt.-19	urt.-20	urt.-21	urt.-22	urt.-23	urt.-24
Saldoa	7.486	7.157	10.476	6.198	6.797	6.394	4.775	2.904	779	1.076	3.487	1.490	1.099	2.107	3.450

Urte arteko saldoari dagokionez, erregistratutako langabeen kopuruak beherako joera positiboa mantendu badu ere, urtetik urterako saldoaren bilakaeran aldeak pixkanaka murrizten ari dira. Hala ere, hilabete honetan 2023ko urtarrilean baino 1.676 langabe gutxiago daude.

Gaur egun erregistratutako langabeen kopurua 2013ko martxoko maximo historikotik 68.112 pertsonatara dago, 2008an hasitako krisiaren unerik txarrena. Bestalde 40.274 langabe gehiago daude 2007ko ekainean baino, orduan erregistratu zen azken hamarkadetako minimo historikoa.

Beste urtarriletako balio maximo eta minimoei dagokienez, 2024ko urtarrilean, 2013an baino 64.052 langabe gutxiago daude (% 36,5 gutxiago), eta 2007ko urtarrilean baino 30.544 langabe gehiago, hau da, % 37,9 gehiago.



• SEXUA

Hil arteko datuak kontuan hartuta, 2.859 langabe gehiago daude emakumeen artean (% 4,66ko igoera), eta emakumeak hil honetako hazkundearen % 82,8a dira. Gizonen artean ere langabetu kopurua hazi egin da, nahiz eta nabarmen gutxiago (+591, +% 1,27). Urteko erlazioan, langabeziak antzera egin du behera bi sexuetan; -883 emakume (-% 1,36) eta -793 gizon (-% 1,66). Aldiz, jaitsiera hori desberdina izan da adin tartearen arabera.

• ADINA

Hil arteko saldoaren zifrak kontuan hartuta, hilabete honetan langabezia igo egin da adin-talde guztietan. Hala ere, hazkunde horren eragina desberdina da talde batzuen eta besteen artean. Nabarmentzekoa da 30 urtetik beherakoen artean izandako langabetu kopuruaren gorakada, hazkunderik handiena izan baitu adin tarte honek; +%7,56 eta 1.274 langabe gehiago. Ondoren, 45 urtetik gorakoak daude, 1.324 langabe gehiago (+% 2,23), eta 30-44 urte bitartekoak, % 2,71ko gorakada eta 852 langabe gehiago.

Urte arteko saldoan, langabeziak beherakada handia izan du 30 eta 44 urte bitartekoen artean (-% 4,35), eta jaitsiera txikiagoa izan da 44 urtetik gorakoen artean (-% 0,96). 30 urtetik beherakoen artean, aldiz, % 2,13 igo da. Hala ere, adin tarte horretan soilik da emakumeen langabeziaren bilakaera gizonena baino hobea; +99 emakume eta % 1,08ko igoera, +280 gizon eta +% 3,27ko igoeraren aurrean.

• JARDUERA EKONOMIKOA

Datua sektoreka aztertuz gero, hilabete honetan nabarmentzekoa da Eraikuntzan (-72 pertsona eta % 1,15 gutxiago) eta Industrian (-7 pertsona, -% 0,07) langabeziak pixka bat behera egin duela. Zerbitzuetan, aldiz, igoera handiena izan da, 3.168 langabetu gehiagorekin (+%4,20); aurreko enplegurik gabekoen artean 354 langabe gehiago erregistratu dira (+%2,67ko hazkundea) eta, azkenik, lehen sektorean 7 langabetu gehiago daude eta %0,34koa izan da igoera.

Hilabete honetan, Enpleguarekin lotutako jardueretan eta Hezkuntzan erregistratu dira langabe kopuruaren murrizketa handienak. Horrela, Gabonetako oporrengatik sektorean izandako geldialdiaren ondoriozko igoera berreskuratu du Hezkuntza Sailak.

Xehetasun-maila handiagoan, honako hauek izan dira azken hilabetean langabeziaren jaitsieragatik gehien nabarmendu diren jarduerak:

78 Enpleguarekin lotutako jarduerak	-619
85 Hezkuntza	-278
41 Eraikinak eraikitzea	-73
25 Produktu metalikoen fabrikazioa, makineria izan ezik	-67
24 Metalurgia; burdinazko, altzairuzko eta ferroaleaziozko produktuak	-51

Erregistratutako langabeziaren igoeragatik nabarmentzen diren jarduerak:

47 Txikizkako merkataritza	736
87 Egoitza-establezimenduetako laguntza	733
81 Eraikinetarako zerbitzuak eta lorezaintzako jarduerak	433
56 Janari- eta edari-zerbitzuak	362
Aurreko enplegurik gabe	354
86 Osasun-jarduerak	322

• LANGABEZIAREN IRAUPENA

Hilabete honetan epe-luzeko langabezia 531 pertsonatan igo da. Iraupen laburrekoa 2.919 pertsonatan hazi da; hilabete honetako langabe gehikuntzaren % 84,6 da. Balio erlatiboetan, urteko erreferentzian, beherakada gertatu da bai iraupen luzeko langabeen kolektiboan, 257 pertsona gutxiago (% 0,47ko beherakada), bai iraupen laburreko langabeen kolektiboan, -% 2,41ko murrizketa (-1.419 pertsona gutxiago).

Epe luzeko langabezia handiagoa da 44 urtetik gorakoen artean, emakumeen artean, eta Bizkaian edo Araban bizi direnen artean. Azken hilabeteko bilakaera erlatibo onena gizonei, 44 urtetik gorako pertsonei eta Araban bizi diren pertsonei dagokie. Iazkoarekin alderatuta, nabarmentzekoa da iraupen luzeko langabeziaren hazkundea 30 urtetik beherakoen artean (+358 pertsona, % 7,9ko igoera); eta murrizketa emakumeen artean (-447 pertsona, -% 1,4) eta Bizkaian bizi direnen artean (-288 pertsona, -% 0,9) eta hazkundea Gipuzkoan bizi direnen artean (+84 + % 0,6).

• LANGABETUEN KOKAPEN GEOGRAFIKOA

Hil honetan, balio absolututan, Araban bakarrik egin du behera langabeziak, 132 pertsona gutxiagorekin (%-0,68), eta Bizkaia da balio erlatibo eta absolutuetan bilakaera txarrena izan duen lurraldea. Bizkaian, 2023ko abenduan baino 2.454 langabe gehiago daude, (% 4,07ko igoera), guztira 62.758 pertsona daude langabezia egoeran. Gipuzkoak 29.547 langabe ditu, abenduan baino 1.128 gehiago, eta % 3,97koa izan da hazkunde erlatiboa.

Urteko saldoan, langabeziak behera egin du lurralde guztietan; portaera onena Arabak izan du, % 4,73ko jaitsiera erlatiboarekin. Gipuzkoan % 1,13 egin du behera langabeen ehunekoak, eta Bizkaian % 0,63.

Euskal hiriburuen artean, balio erlatiboetan, Donostiak jasan du langabeziaren bilakaera txarrena, % 6,6 hazi baita. Beste bi hiriburuek antzeko bilakaera dute: Gasteizen % 4,23 hazi da eta Bilbon % 4,06.

Sestao (% 15,42), Amurrio (% 15,33), Oion (% 14,15), Balmaseda (% 13,74) eta Santurtzi (% 13,48) dira langabezia-indize handienak izan dituzten udalerriak.

• LANGABEZIA-PRESTAZIOA

2024ko urtarrilean, 36.330 langabek jaso dute langabezia-prestazioren bat, aurreko hilean baino 1.724 gehiagok. Gaur egun, langabeen % 32,7k langabezia-prestazioren bat jasotzeko eskubidea du. Langabeen % 18,5ek (20.526 pertsona) kotizaziopeko prestazioa jasotzen dute. % 12,97k (14.426 pertsona) langabezia-sorospen motaren bat jasotzen du. Lurralde historikoka, Gipuzkoa da babes handiena duen lurralde historikoa, % 35,2ko tasarekin; Araban % 30,4koa da eta Bizkaian % 32,1ekoa.

Abenduaren aldean, langabeziagatiko estaldura-tasa 0,55 puntu igo da, eta iazko urtarrilaren aldean 0,86 puntu jaitsi da..

• JATORRIA

Langabe guztietatik 20.593 (% 18,5) atzerritarrak dira. 2023ko abenduaren aldean, langabeziak % 3,81 egin du gora atzerritar jatorriko pertsonen artean, bertakoen artean izandako igoeraren oso antzekoa. Aitzitik, urte arteko bilakaeran atzerritar jatorriko langabeen kopuruak % 8,83 egin du gora, aldiz, bertakoen artean % 3,56 egin du behera.

Atzerriko langabeen % 32,7 Afrika iparraldetik datoz, % 26,7 Latinoamerikatik, % 15,7 Europako Esparru Ekonomikotik, % 11,7 Saharaz hegoaldeko Afrikatik eta % 6,2 Asiatik. Azken hilabetean langabezia gehien igo den jatorriak Hego Amerika (+501) eta Ipar Afrika (+161) daude.

• IKASKETA MAILA

61.795 langabek, guztien % 55,6k, asko jota derrigorrezko ikasketak dituzte. Azken hilabetean, oinarrizko prestakuntza maila hau duten 1.276 pertsona gehiago daude langabezian, hau da, % 2,11 hazi da. Azken urtean, berriz, langabeziaren beherakada % 1,56koa izan da derrigorrezko ikasketak dituztenen artean (-982 pertsona).

Batxilergoa duten langabetuak langabe guztien % 7,8 dira. Azken hilabetean % 3,62 igo dira eta azken urtean, aldiz, % 0,53ko beherakada izan dute.

Lanbide Heziketako ikasketak dituzten langabetuak 27.896 dira, guztizkoaren % 25,1. Kolektibo honetan gertatu da langabe kopuruaren hazkunderik handiena urtarrilean, 1.540 pertsona gehiago eta % 5,84ko hazkunde erlatiboarekin. Aurreko urtearekin alderatuz, ikasketa maila honetan bakarrik igo da langabeen kopurua, 379 pertsona gehiago eta % 1,38ko hazkundearekin.

Azkenik, % 11,6k (12.860 pertsona) unibertsitate-ikasketak ditu. Ikasketa-maila hori duten langabetuak % 2,64 hazi dira azken hilabetean, eta iazko datuekin alderatuta, berriz, % 7,40 murriztu dira.

• KONPARAKETA ESTATUKO DATUEKIN

Estatuan langabezia % 2,23 igo da, 60.404 pertsona gehiago, eta guztira 2.767.860 langabe daude erregistratuta; EAEn, berriz, erregistratutako langabezia % 3,2 igo da. Nafarroan % 2,25 igo da, Errioxan % 2,79, Kantabrian % 2,48 eta Gaztela-Leonen % 3,07. Katalunian % 1,07 igo da, eta Madrilen % 3,26.

Lan-eskatzaile langabeak 2024ko urtarrilean

	Urt-2024	Abe-2023	Saldoa	Bil %
SEXUA:				
GIZONEZKOAK	47.065	46.474	591	1,27
EMAKUMEZKOAK	64.164	61.305	2.859	4,66
25 URTEZ AZPIKOAK:				
GUZTIRA	18.136	16.862	1.274	7,56
GIZONEZKOAK	8.831	8.362	469	5,61
EMAKUMEZKOAK	9.305	8.500	805	9,47
25-44 URTE:				
GUZTIRA	32.309	31.457	852	2,71
GIZONEZKOAK	12.476	12.454	22	0,18
EMAKUMEZKOAK	19.833	19.003	830	4,37
45 URTEZ GORAKOAK:				
GUZTIRA	60.784	59.460	1.324	2,23
GIZONEZKOAK	25.758	25.658	100	0,39
EMAKUMEZKOAK	35.026	33.802	1.224	3,62
SEKTOREA:				
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	2.086	2.079	7	0,34
INDUSTRIA	10.680	10.687	-7	-0,07
ERAIKUNTZA	6.210	6.282	-72	-1,15
ZERBITZUAK	78.624	75.456	3.168	4,20
AURREKO ENPLEGURIK GABE	13.629	13.275	354	2,67

2024ko urtarrilean erregistratutako langabezia

LURRALDE HISTORIKOA:				
ARABA	18.924	19.056	-132	-0,69
BIZKAIA	62.758	60.304	2.454	4,07
GIPUZKOA	29.547	28.419	1.128	3,97
EAE	**111.229**	**107.779**	**3.450**	**3,20**

ESKUALDEKO BILAKAERA

	Langabetuak	Erregistratutako langabezia indizea	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
			Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Bajo Bidasoa	3.888	10,2%	142	3,79	81	2,13
Oarsoaldea	3.379	9,0%	158	4,91	-71	-2,06
Donostia-S.Seb.	7.063	7,9%	437	6,60	-124	-1,73
Donost.Oeste	2.872	7,4%	40	1,41	-166	-5,46
Tolosaldea	1.837	7,6%	72	4,08	-99	-5,11
Urola Erdia	1.186	7,5%	22	1,89	2	0,17
Goiherri	1.580	7,3%	28	1,80	-61	-3,72
Alto Deba	2.424	7,9%	76	3,24	52	2,19
Bajo Deba	2.745	10,4%	68	2,54	135	5,17
Urola Garaia	1.048	8,6%	6	0,58	-59	-5,33
Urola Kosta	1.525	6,5%	79	5,46	-28	-1,80
GIPUZKOA	**29.547**	**8,3%**	**1.128**	**3,97**	**-338**	**-1,13**
Vitoria-Gasteiz	14.654	11,4%	595	4,23	-291	-1,95
Valle de Aiala	2.231	11,7%	40	1,83	-29	-1,28
Rioja Alavesa	592	10,3%	23	4,04	-39	-6,18
LLanada Alavesa	675	8,9%	5	0,75	-41	-5,73
Estrib. Gorbea	292	5,8%	7	2,46	-11	-3,63
Valles Alaveses	393	7,6%	-7	-1,75	-38	-8,82
Montaña Alavesa	105	6,4%	1	0,96	11	11,70
ARABA	**18.924**	**11,1%**	**-132**	**-0,69**	**-939**	**-4,73**
Gobela	4.379	8,5%	207	4,96	-89	-1,99
Txorierri	2.091	8,9%	130	6,63	-39	-1,83
Uribealdea	2.867	8,1%	164	6,07	15	0,53
Duranguesado	3.187	8,4%	-36	-1,12	-77	-2,36
Busturialdea	2.120	9,5%	128	6,43	-38	-1,76
Lea-Artibai	880	7,3%	30	3,53	-95	-9,74
Encartaciones	1.919	12,1%	90	4,92	6	0,31
Arratia-Zornotza	1.421	8,0%	15	1,07	-25	-1,73
Medio Nervion	1.291	9,7%	16	1,25	-21	-1,60
Bilbao	21.734	12,7%	848	4,06	-17	-0,08
Margen Izquierda	16.411	12,9%	760	4,86	8	0,05
Ibaizabal	4.414	10,7%	107	2,48	-3	-0,07
BIZKAIA	**62.758**	**11,0%**	**2.454**	**4,07**	**-399**	**-0,63**
CAPV	**111.229**	**10,1%**	**3.450**	**3,20**	**-1.676**	**-1,48**

* Bizkaia eta Arabako eskualdeen batura ez dator bat lurraldeko totalarekin, Orduña udalerria Bizkaikoa izanik Arabako Aialako Ibarra eskualdean kokatzen baita.